Badakigu, diruaz eta enpleguaz harago, badagoela Bizitzarik. Hau sentitzeko aukera izan dugu norbaiten entzumen maitekorra izaterakoan edo janari goxo bat prestatu dugunean. Nola bilaka dezakegu orduan bizipen multzo hau egi ukigarri gure Bizitza prekarizatu eta bizkortuetan? Badaukagu tartetik guretzat? Eta gure lagunentzat? Zein da gure enpleguez harago geratzen zaigun energia? Nor eta nola zaintzen dugu?

Azken urteetan oso entzutetsu bilakatu den “zaintzak erdigunera” leloa gure egin nahi dugu. Lurrera ekarri, egi bilakatu. Teoriatik eguneroko Bizitzara jauzi egin. Gorputzetan eta harremanetan txertatu Bizitza Ona.

finantzaz haratago

# Bizitza Onaren egunerokoa

Hamabi hilabeteko bidaia zure barrenetik, zure ingurua eraldatzeko.